



Xabier Uribe-Etxebarria, Anbotu Gropu-eko fundatzailea, Erandion duten bulegoan. / MITXI

Web orriekin mintzatu ahal izateko zerbitzua

Anboto Group-ek laguntzaile birtual bat garatu du, Interneten gestioak idatzizko elkarrizketetaz burutzeko. **Mikel Otaegi**

Formularioak, galdeketa orriak, desagertzeaz daude Interneten. Produktu bat erosi edo zerbitzu bat kontratatu behar dela? Dagokion web orrian sartu eta bertan orriarekin berearekin mintzatzea nahikoa izango da. Anboto Group enpresak laguntzaile birtualak eta elkarrizketa sistematik sortzen ditu. Xabier Uribe-Etxebarria fundatzailearen esanetan, «gizaki baten eta ordenagailu baten arteko solasaldia posible egin duen avatar bat garatu du konpainiak, lengoia naturalaren bidez». Elkarrizketa libre bat da.

«Adibidez, imagina dezagun bidai-agentzia baten web orrian aplikatu dutela gure zerbitzua. Nik, bezero bezala, bertan agertuko litzaidakeen eremu batean galdetu dezaket: 'Bidaia bat egin nahi dut eta hegaldi bat behar dut bihar niretzat, nire emaztearentzat, eta nire semeentzat (15 eta 16 urte dituzte). Ez dut eskalarik egin nahi eta diru kopuru jakin hau ordaindu dezaket'».

Sistemak kontsulta aztertuko luke eta, daturen bat faltako balitz, bezeroari galdetu egingo lioke. Telefonoz erostea edo bidai-agentzia batera joatea bezalakoa da. Azkenik, jasotako informazio guztiaren araberrako eskaintzak azalduko dizkio laguntzaile birtualak bezeroari. «Testuaren azterketa morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa (hau da garrantzitsuena), pragmatikoa eta funtzionala egiten du gure programak. Ontologiaren bitartez burutzen dugu azterketa, kontzeptuek dituzten barne loturak behatuz, kontzeptuak baitira azterketa horren subjektuak, hitzek testuinguruan duten esanahiak», dio.

Hizkuntza tresna bezala erabiltzen duen inteligentzia artifiziala da Anbotoren laguntzaile birtuala. «Horrelako soluzioen eskari ugari daude, izugarri hobetzen baitu bezeroari eskainitako arreta. Gastuak ere asko gutxitzen dizkio enpresari eta, salmentaren bat biderratu balu, etekinak handituko li-

tuzke. Bizi dugun krisi garairako perfektua da».

Itzulpen automatiko eleanitzaren munduan aditua da Xabier Uribe-Etxebarria. Estatu Batuetara joan zen Massachusetts Institute of Technology (MIT) defakoa eta Harvard-en ikasketa batzuk burutzera. «Jende benetan garrantzitsua ezagutu nuen han». Ideia anitz zituen buruan: «Daukadan ezagutza linguistikoa, semantikoa, zertan aplikatu dezaket?», galdetzen zion bere buruari. Ordura arte metatutako ezagutzak aplikazio batean bihurtu nahi zituen, baina itzulpen automatikoarekin ez zuen nahikoa: «Azken urteotan commodity bat bilakatu baita itzulpenarena, inor gutxi dago prest halako aplikazio baten truke dirua ematera, Google-ek debalde eskaintzen baitu». Prototipoak sortzen hasi zen, elkarrizketa-sistema baten inguruan.

«Estatu Batuetan zenbait jenderi nire lana ezagutzera eman nien. Pertsona horietako bat Deborah Dahlek izan zen, Unisys-en diseinatzaile nagusia. Lengoia naturalaren ulerpenerako teknologia da, Estatu Batuetako Defentsa sailleko Defense Advanced Research Projects Agencyren (Defentsarako Ikerkuntza Proiektu Aurreratuaren) parte. «Pasa den urtean, New Yorken, izugarri txundituta gelditu zen aurkeztu nionarekin. Horregatik, World Wide Web partzuergoaren (W3C) lantaldean parte hartzeko eskatu zidan». Orduz geroztik W3C-ko euskal enpresa bakarra dira.

«Joan egin nintzen, baina nirekin prototipoaren garapen handiagoa eraman nuen. Hauek ere txundituta utzi nituen eta, zuzenean, aholkularien batzordeko kide egin ninduten», gogoratzen du. Osatzen ari zen aplikazioa oraindik ere gehiago garatu zuen eta enpresa, Anboto Group, 2009ko azaroaren 26an sortu zuten, «nahiz eta, benetan, ez genuen aurtengo urtarrilerarte martxan jarri». Lehenengo bezeroak orduan iritsi zitzaizkien: bankuak, airebideak, osasun-enpresak, etab. Eta bezeroekin batera, aditu gehiagoren aintzat hartzea. «Gartner konpainiaren ikerketa zuzendariak bisitatu gintuen. Gart-

ner munduko teknologiaren inguruko aholkularitza enpresarik garrantzitsuena da, teknologia munduko PricewaterhouseCoopers edo Arthur Andersen moduko bat». Eta Gartnerren aburuz, Anbotok proposatutako elkarrizketa zerbitzua «be-lanaldi bat aurreratu da teknologian, laugarrenetik bosgarrenera pasa da».

«Gartner konpainiaren ikerketa zuzendariak bisitatu gintuen. Gart-

Sarearen etorkizuna: 'web' semantikoaren zabalkundea

Anboto Group Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo enpresa da W3Cen kide izaten, baita bakarra ere. Lantaldea osatzen dutenen 335 bat enpresen artean Google, Yahoo, Adobe, IBM edo CERN daude. Erakundearen zuzendaria Tim Berners Lee da (webaren aitatzat dutena, HTML hizkuntza as-



ner munduko teknologiaren inguruko aholkularitza enpresarik garrantzitsuena da, teknologia munduko PricewaterhouseCoopers edo Arthur Andersen moduko bat». Eta Gartnerren aburuz, Anbotok proposatutako elkarrizketa zerbitzua «be-lanaldi bat aurreratu da teknologian, laugarrenetik bosgarrenera pasa da».

matu zuelako, munduko web guztiak ikusteko erabiltzen den sistema, alegia) eta gaur egun eskuartean duen proiektua web semantikoa da. Interneten etorkizuna da, W3Ck sareak aurrera egin nahi duen edonoren bidea eta norabidea ezartzen du. Erakunde ospetsuaren kideak 30 bat lanfaldetan banatzen dira.